

ELIKADURA BURUJABETZA



Jean Michel Etchecolonea

EGOERA

Mundu mailan elikagaien kontrola esku gutxietan pilatu da, azkeneko hamarkadetan ekoizpen ereduak tokian tokiko beharren arabera izatetik, esportatzeko ekoizpen industrialak eta mugarik gabeko arrantza masibora pasatu dira. Ondorioz, munduko hainbat herrialdeetan eredu familiarak baztertu dira eta, FAOren arabera, historiako gose tasarik handienak ikusten ari gara.

Euskal Herriko elikadura-sistemara aspaldi iritsi dira elikagaien merkaturaren liberalizazioa eta globalizazioa. Europar Batasunetik, Madrildik eta Euskal Herriko instituzioetatik azken hamarkadetan ezarritako politikak gainera, lehenengo sektorea indartu beharrean, oinarriko elikagaietan kanpoko menpekotasuna izugarri areagotu dute.

Politika horien ondorioz, gure herria kalitatez elikatzeko ezinbestekoa den nekazaritza eta arrantza sektoreak krisi kronifikatua murgilduta daude: lanpostuen galera etengabea, emakume eta errelebo falta, errentagarritasun ekonomikorik eza... Industrializazioa eta espezializazioak gure lurraldean ez du balio izan lehenengo sektorea suspertzeko eta, Jaurlaritzaren beste arlo batzuetako politikak, lurralde antolaketan, merkataritzaren inguruan, industrian eta abar, gure herriko elikadura burujabetzarako oztopo handia dira gaur egun. Horretaz gain, ezin dugu ahaztu politika publikoek ingurunea eta elikagaien kalitatea bigarren mailan kokatu dituztela, iritsi ez den balizko bideragarritasun ekonomikoa salduz.

HELBURUAK

Herri gisa, gure helburu nagusienetarikoa herritar guztion kalitatezko elikadurakiko eskubide subjektiboa bermatzea da. Horretarako elikadura burujabetzaren sustapena da bidea.

Ekoizpenean, transformazioan, komertzializazioan, formazioan, sentsibilizazioan eta abar, lurralde kohesioa eta orekak bermatuz, herri ikuspegiko planifikazioari ekiteko garaia da. Ildo honetan, Euskal Herriko herrialdeen arteko harremanak bultzatzea lehentasunezkoa da. Eskualde guztietan tokiko elikadura sistemak garatzeko egiturak sortzeko apustua egin nahi

dugu. Agroekologiaren bidez, gure kulturen eta baliabide naturaletan oinarritutako nekazaritza jarduera iraunkorra sustatzea da gure etorkizuna bermatzeko. Legealdi honetan, elikadura sistemaren parte garen guztion ahalegin berezia egitea ezinbestekoa da elikadura sistema iraunkorragoa eta bidezkoagoaren bidean urrats objektiboak emateko.

Norabide horretan, legealdi hau baliatu behar dugu Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian nekazaritza eta arrantza krisi egoeratik ateratzeko eta etorkizuneko oinarri sendoak ezartzeko.

Honetaz gain, Elikadura eskubidea ahalbideratuko duen marko legaleko hamaika neurri.

SAILEN ARTEKO KOORDINAZIO MAHAIA.

Politika integralak garatzeko sailen partaidetza ezinbestekoa izanik, lehen sektorea, hezkuntza, lurralde antolaketa, ingurumena, ekonomia, osasungintza eta gizarte justiziaren arteko koordinazio mahaia sortuko dugu. Mahai honetan, sektorearen parte-hartzea bermatuko da.

SEKTOREAREN ALDE SOZIALA

LANBIDEEN ERREKONozIMENDUA ETA BIZI ZEIN LAN-BALDINTZA DUINAK.

- Prezio duinen bidez diru sarrera nahikoak, autonomia, jendartearen gertutasuna eta errekonozimendua bermatzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Beste instituzioekin elkarlanean, ordezkatzeko zerbitzu eraginkorrak sustatuko ditugu. Administrazioak sortuko duen mutuak langileen kontratazioen gain-kostuei, lan arriskuen prebentzioa edo osasunaren zaintzari, aurre egingo die. Aktibo bakoitzeko langile bat babestuko da.

EMAKUMEEN PAREKOTASUNA.

- Eredu iraunkorra oinarritzkoa da emakumeen eskubide berdintasuna lortzeko, beraz, oinarri honekin, emakume nekazaria aintzat hartzea gure lehentasuna izango da nekazal munduko langile edo profesional bezala, Emakume Nekazariaren estatutua garatuz, nekazal sektoreko baliabideak, zerbitzuak eta enpleguak erabateko berdintasunean eskuratu ahal izateko.
- Gizarte politikarekin elkarlanean, azpiegitura sozial publikoak indartuko ditugu sektoreko emakume zein gizonei lana eta familia uztartzea bideragarri egiteko.
- Arrantzan, emakume arrantzale zein saregilearen langile-eskubideak eta lanaren duintasuna bermatuko duen hitzarmen egokiak lortuko ditugu.
- Azpiegitura sozialetan inbertitzea, sektoreko gizonei eta emakumei lana eta familia uztartzea bideragarri egiteko (ez bakarrik emakumei, hemen denok uztartu behar dugulako, emakumeak bizitza osoa daramate uztartze lanean, horregatik garrantzizkoa da emakumeen egoerak ikusgarri egitea, baina baita gizonekin batera erantzukizuna partekatua izatea, rola beti euren bizkar eror ez dadin). Horretarako, haurdunaldi eta amatasun baja egoerarako ordezkapen zerbitzua, Hurbiltasun Zerbitzuak, pertsona adinekoak beren etxeetan mantendu ahal izateko eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen (adin gutxiak, edadekoak, ezintasun egoeran daudenak...) zaintzaileei atsedendaldi programak eskaintzea.

GAZTEAK ETA ERRELEBOA.

- Esparru guztietan batera eragingo dugu: baliabideak eskuratzeko aukera eman, formazio eraginkorra eskaini, baliabide ekonomikoak jarri, euren produktuei irtenbideak eman eta lan zein bizi baldintza duinak bermatuko dira.
- Arrantzan eta Nekazaritzan, gazteak ezartzeko aholkularitza eta laguntzak indartuko ditugu, eredu agroekologikoak sustatuz, aktiboen sorrera bultzatuz eta inbertsio handien beharra saihestean oinarrituko dira.

- Baserritarrak eta Kofradiak/itsas-enpresak, gazteekin eta arrantza zein nekazaritza ikastetxeen artean lankidetzan aritzea bultzatuko dugu.
- Baserriak eta itsasontziak eskuz aldatzerakoan laguntza politikak bideratuko dira.
- Arrantzan, (baxurako/artisau) itsasontzien kudeaketan kofradiei paper nagusia emango zaie.



BALIABIDEEN BABESA

NEKAZARITZA LURRA.

- Informazio zuhurretik abiatuta, landa lurzorua sailkapen eta kalifikazio xehatu eta egokitik abiatuta, lurralde antolaketa planetan nekazaritza ez diren beste erabilerak tinko galaraziko dituzten eta lotesleak izango diren ildoak markatuko ditugu. Horrela, jabetza publikoak diren lurak baserri jardueretarako bideratzea lehenetsiko dugu.
- Merkatu espekulatzaitetik nekazaritza lurak ateratzeko lege berriak ezarriko dira. Sektoreko parte-hartzearekin prezioak finkatuko dira, gero nekazari eta abeltzainen artean banatzeko, gazteak lehenetsita.
- Administrazio ezberdinen arteko erakundea sustatuko dugu, lur publiko zein erabiltzen ez diren lurren inbentarioa osatzeko, lur funts eraginkorrak eratzeko, jarduera utzi eta hasi nahi dutenen artean bitartekari lanak egiteko edo utzi behar duten baserrien jarraipena egiteko xedez.
- 2/2006. Legean, Lurzoruari eta hirigintzari buruzkoan, jasotako “aholkularitza kontseilua” figura edukiz hornitzea, kontseilu horretan lehen sektorearen ordezkariak egotea bermatuz, eta herritarren benetako parte-hartzea sustatzea hirigintza antolamendu planak (HAPO) idatzi, berraztertu edota aldatzerakoan, eta baita udalaz gaineko eremuko bestelako plangintzetan ere (LZP, LAP, LAA, ...).

URA, BIOANIZTASUNA, HAZIAK ETA GAINERAKO BALIABIDEAK.

- Baserritarren artean, bertako hazi, espezie zein barietateen erabiltzea, trukatzea eta hobekuntza sustatuko dugu.
- Euskadiko Hazien Sarea indartu eta Neiker erakunde publikoa bertako hazi barietate tradizionalen berreskurapen eta zabaltze lanetan murgilduko dugu nekazari zerbiztu egokia eskainiz.
- Urari dagokionez, kudeaketa publikoa eramango dugu, nekazaritzarako tasa bereziak eta lurraren hedadura eta animalia kopurura egokitutako uraren erabilpen egokia bermatuko dugu.

ITSASOA

- Gure kalen etorkizuna bermatzeko itsas eremu babestuak ezarriko dira.
- Arrantzaleen adostasuna bilatuz, sareen neurria kontrolatuko da, baita baxurako arrantzarako ere.
- Itsasoari eta arrainen ongizateari kalte egiten dien kutsadurarekin bukatzeko, neurri zorrotzak ezarriko dira.

NEKAZARITZA IRAUNKOR ETA HERRIKOIA.

- Lehen sektoreari begira garatzen diren politika guztietan, zeharretara, helburu legez, elikadura subiranotasuna sustatzea.
- Jaurlaritzak Aldundiei, lurrari lotutako eredia susta dezaten eta agroekologia hedatzeko proiektuak martxan jarri ditzaten, bere esku dauzkan tresna guztiak eskainiko dizkie: aholkularitza, Landa Garapen Iraunkorrerako Programa, diru-laguntzak eta baliabide publikoak. Horrela, desintensifikazioa, baserrien autonomia eta dibertsifikazioa sustatuko dira.
- Diru-laguntza guztiak birbideratzea, horien modulazioa (murrizpena) onartuz, eta aktiboei edo horietako langile kopuruaren arabera, eta ez ustiapenen azaleraren arabera.
- Landa Garapen Iraunkorrerako Programak eskaintzen dituen baliabideak lehenengo sektorearen egoera hobetzeko bideratuko dira, honetatik kanpo dauden jarduerak beste diru iturrien bitartez finantzatzeko direlarik.
- Nekazaritza-eskolatze zerbitzua abian jartzea, desintensifikazio prozesuetan aholkularitza eta laguntza eskaintzeko, jaurlaritzatik zuzendua eta teknikari-laguntzaile batekin eskualde bakoitzean, ustiapenetako zikloak ixtea, sektore barruko aniztasuna eta ekoizpen agroekologikoaren eredia sustatzeaz arduratuko litzatekeena.
- Produkzioaren kontrolerako politika publikoak sustatuko dira, gehiegizko produkzioa ekiditeko, eta beraz, jatorrian prezioek behera egitea edota produkzio eskasia, eta ondorioz, kontsumorako prezioak igotzea. Horretarako, indarrean dagoen produkzioaren eta merkatuaren kontrolerako neurriak berreskuratu edo mantentzeko lan egingo da, NPB Nekazal Politika Bateratuak indargabetuak jada.
- Herrialdeen arteko mahaia eratuko da, hainbat lehengaien inguruko ekoizpenaren eta beharren planifikazioa burutzeko eta horren bidez, bertako nekazaritzak eta abeltzaintzak duten beharrak bideratzeko eta antolatzeko.

ARRANTZA SELEKTIBOA

- Gure flotak arrantza selektiboa egitera bultzatzeko neurriak eta pizgarriak jarriko ditugu, tresneria zein baliabide egokiak ziurtatuz, kuoten publikotasuna mantenduz eta erakunde publikoen bidez, arrazionalki banatu eta kudeatuz.
- Itsas produktuen dibertsifikazioa bultzatuko dugu.
- Arrainaren freskotasuna babesten dituzten osasun-neurriak bideratuko ditugu.
- Arrantza prozesu-motak azpimarratuko dira, artisau erakoari edo sarea zein amua erabiltzen duenari garrantzia eta gainbalioa emateko.

ZERO BAZTERKIN ERAGIN.

- Itsasoko baliabideak mugaturik daudenez, Europatik datozen kuotak banatzeko orduan arrantza arduratsua oinarritzat hartuko dugu.
- Kuotaren erabilpen eraginkorra bermatu behar da. Horretarako, Zero Bazterkin politika aplikatuz eta tresna selektiboak erabiliz, harrapatzen den guztia portura ekartzea eta kontsumora bideratzea ahalbidetuko da.

GENETIKOKI ERALDATUTAKO ORGANISMOEI ATEA ITXI.

- Ekoizpen iraunkorarekin eta kalitatearekin kontrajarrita daudelako, Hiru Lurralde Historikoak “transgenikorik gabeko gune” mantenduko ditugu.
- Giza zein animalien elikagaien etiketetan genetikoki eraldatutako organismoen presentzia argi eta garbi azaltzearen alde egingo dugu eta epe ertainean desagerrarazi eta debekatzeko planak garatuko ditugu.



TOKIAN TOKIKO GARAPENA

SALNEURRIEN BEHATOKI PUBLIKOA ETA ETIKETEN INFORMAZIOA.

- Ekoizpen kateko salneurrien behatoki publikoa martxan jarriko da, kate osoarentzat ezinbesteko betebeharrekoa izango dena.
- Etiketetan jatorrizko zein helmugarako prezioak azalduko dira.
- Elikagaien jatorria eta erabilitako teknikak adieraziko dira, baita transformatutako produktuetan ere.

ARTISAU EKOIZPENA ETA ARRANTZA SELEKTIBOEN BEREZKO IZAERA.

- Baserriko artisau ekoizpena eta arrantza selektiboek izan duten berezko izaerari (ekoizpen zein arrantza eredua, produkzio kantitatea, itsasontzi eta baserriaren dimentsioa, produktore bera ekoizle eta transformatzaile izatea...), marko legala emango diogu eta bere garapenerako beharrezkoak diren arlo ezberdinetako araudiak moldatuko dira.
- Jarduera hauek suspertzeko transformazio gune kolektiboak eta publikoak sustatuko ditugu, ondoren merkaturatzeko eta autosufizientzia ekonomikoa lortu ahal izateko.
- Osasun arloko kontrolak murrizteko osasun politika berbideratzea, zenbait prozedura "errazteko", beste batzutan alferreko betekizun teknikoak eta ekonomikoki neurrigabeak ezartzen dituen bitartean, baserrietako ekoizle txikiei eraldaketa legez egitea eragotziz.

MERKATURATZE BIDEAK.

- Zuzeneko salerosketa sistemak eta eskualde, herri edo eta auzo guztietan produkzio-kontsumo taldeak sustatuko dira, plangintza eginda, eta konpromiso eta erantzukizuna elkarren artean banatuz.
- Asteroko azoken aldeko apustua egin, guneotan baserritarren eta gazteen produktuak egongo direla ziurtatu, baserritarra ez den produktuaren birsaleroste ekidinda. Batzuetan bi jarduera hauek (baserritarrak eta birsaltzaileak) bateragarriak izan daitezke baina garrantzitsua da ondo bereziak izatea.
- Azalera handiko guneen hedapena mugatuko dugu. Administrazioaren ekimen eta ekitaldietan (hamaiketako, bazkari, merienda, afari...) tokian tokiko produktuak erabiltzea eta jantoki kolektiboak (eskolak, zaharren egoitzak, ospitaleak, osasun zentroak,...) tokian tokiko elikagaiekin hornitzea.
- Merkataritxiaren eskualdeko katalogoa sortzea, Elikadura Subiranotasunaren alde egingo duena, kontutan izanik denda txiki hauek gutxienez ere %eko hainbat bertako produktua saldu beharko dutela, baserritarrei zuzenean bidezko prezioan erosia.

PROMOZIOA ETA JENDARTEAREN PARTE-HARTZEA.

- Tokian tokikoa, garaian garaikoa eta kalitatearen inguruko kanpainak indartuko ditugu. Kalitatearen kontzeptu zabalak: ingurumena, arlo soziala eta elikagaien edukia kontuan hartzen du.
- Auzolanak eta jendartea inplikatzeko sektorerara gerturatzeko bideak eskainiko ditugu.
- Kalitatea eta ekoizpen sistemen iraunkortasuna ziurtatzeko egitura parte-hartzaileak eratuko ditugu.

ELIKADURA POLITIKA.

- Eskoletako, ospitaletako zein egoitzetako jantokietako janariaren gaineko araudia aldatuko dugu, bertako produktuak lehenesteko eta tokian tokiko eskualde mailako catering proiektu kolektiboak sustatzeko.
- Administrazioen ekimenetan tokian tokiko produktuak erabiltzea sustatuko dugu.
- Lehen eta bigarren hezkuntzako curriculumean, nekazaritza, elikadura, osasuna eta elikadura burujabetza sartuko ditugu. Oinarrizko hezkuntzan nutrizioari, elikadurari eta sukaldaritzari buruzko ezaguera pedagogikoak txertatuko ditugu.
- Oinarrizko hezkuntzan nutrizioari, elikadurari eta sukaldaritzari buruzko ezaguera pedagogikoak sartzea, era egituratuan eta gaurkotuan.
- Katering onartzeko baremoak aldatzea, Hezkuntzan, Osasunean eta Gizarte Ongizatean aurreikusita dauden loteak banatuz.
- Jantokietako loteen banaketa birdiseinatzea, adibidez eskualdeka, tokian tokiko eskualde mailako katering proiektu kolektiboek lehiatzeko aukera emanez.
- Katering-enpresak lehiatzen diren jantokietako loteen lehiaketetako baldintza orrietan derrigorrez jartzea inguruko produktuak eta ekologikoak sartu beharra.

SEKTORE ARTEKO MAHAIK.

- Sektore ezberdinetako mahai interprofesionalak sustatuko dira, eta ekoizleen duintasuna bermatzeko tresna bilakatuko ditugu.

MENDIAK ETA BASOGINTZA.

- Baso-baliabideen plangintza egingo da, lursail publikoak zein pribatuak bilduko dituen, basoko espezieen aniztasuna berreskuratze aldera, bai helburu ekonomikoekin eta bai ingurumen zein arlo sozialeko helburuekin.
- Basoen ekoizpenarekin batera abeltzaintza estentsiboa bultzatu eta bateragarri egingo dira, sinergiak sortuz.
- Landaketa intentsibo eta monolandaketetatik libre deklaraturako mendi edo baso-lurren zerrenda eta kartografia egitea, arazo sanitarioak direla medio, penditze maila edo titulartasun publikoak direlako.

4 FORMAZIOA, IKERKUNTZA ETA DIBULGAZIOA

NEKAZARITZA ETA ARRANTZA IRAUNKORREKO FORMAZIOA

- Mendeetan zehar pilatutako ezagutza, egungo aurrerapenak eta ikerketa aintzakotzat hartuz plangintza eta programa zehatzak diseinatu eta martxan jarriko ditugu, praktika eta teoriaren arteko oreka bilatuz, formazioa eta eten-gabeko prestakuntza eskainiko dugu.
- Nekazaritzan eta arrantzan, agroekologia eta arrantza selektiboa ikasketa maila guztietan txertatuko ditugu, baserritar nahiz teknikoen prestakuntzan. Akuikultura ikasketak arrantza ikasketetan integratuko ditugu. Ekoizpen zein arrainaren transformazioa eta salmentarako aukerak jorratuko dira.

IKERKUNTZA PARTE-HARTZAILEA ETA DIBULGAZIOA.

- Bertako baliabideen erabilera eraginkorragoa, biodibertsitatea eta arrain masa-kopurua, bertako haziak eta barietateak, natura eta zikloen inguruko ezagutza, agroekologia, arrantza selektiboa eta akuikulturaren teknikak, kalitatea hobetzeko baldintzak eta teknikak, eraldatzeko prozesuak edo lehenengo sektoreko bizi baldintzak hobetzeko aukerak, besteak beste, izango dira sustatuko ditugun ikerketa gaiak.
- Institutuzio zein enpresa publikoek dituzten baliabideak, sektorearekin elkar-lanean adostutako ikerketak aurrera eramateko erabiliko dira.
- Ikerketen helburu nagusienetako bat emaitzen onurak eta ondorioak ahalik eta baserritar zein arrantzale gehienera iristea eta zabaltzea izango da.

NEURRIAK

- 1 Elikadura osasuntsurako eskubidearen onarpena. Legez eskubidetzat onartua izan dadin.
- 2 Baliabide naturalei babes legala (lurra, itsasoa, ura, bioaniztasuna..). Guztion ondarea diren baliabide naturalak pribatizatzen, kutsatzen edota artifzializatzen ari dira abiadura azkarrean.
- 3 Lanpostuak sortu eta egonkortzeko plan integrala. Emakumeak zein gazteak erakartzeko neurri bereziak.
- 4 Jarduera iraunkorra sustatzea. Elikadura burujabetzaren baitan ikuspegi ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa aintzat hartuz, jarduera bideragarriko irtenbideak
- 5 Tokiko elikadura sistemak bultzatuko ditugu eskualde guztietan, tokiko beharrei erantzuteko. Ekonomia aktibatuz, baserritarrak eta jendartea gerturatuz elikadura sistema bidezkoagoak eraiki ditzagun.
- 6 Elikadurarekiko sentsibilizazioa. Jendarterearen oinarritzko beharra izanik, jendarterearen kontzientzia maila areagotzea ezinbestekoa da beste eredu bidezkoagoa denon artean eraikitzen joateko.

BIDE ORRIA

17/2008 Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako legea aldatuko dugu elikadura osasuntsurako eskubidea administrazioari legez eskatu ahal izateko.

17/2008 Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako legea eta PTS agroforestala aldatuko ditugu nekazaritza lur nahikoa babesteko benetako tresna bihurtzeko. Gure kaladeroen etorkizuna bermatzeko itsas eremu babestuak ezarriko dira, sareen meurria kontrolatu eta kutsadurarekin bukatzeko neurri zorrotzekin. Transgenikorik gabeko lurraldeak mantenduko ditugu.

Eskualde guztietan nekazaritza sektoreko lapostuak sortu eta egonkortzeko plan integralerako instituzio guztiak zein eragile ezberdinak inplikatuko ditugu. PDRa aldatu eta ustiategi txikientzako laguntza lerro bat enpleguak egonkortu daitezten eta enplegu berdearen sustapenerako ezarriko dira. NLUak determinatzen dituen Ekainaren 18ko agindua bertan behera utziko dugu, horren ordez gazte zein emakumeen instalazioak erraztuko dituen planteamendua landuko dugu. Emakumeen estatutua garatzeko bide emango dugu.

PDRa eta 17/2008 Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako legea aldatuko ditugu irtenbide iraunkorrak eskaintzeko: desintensifikazioa, ekoizpen ekologikoa, dibertsifikazioa, transformazioa eta merkaturatze kanal motzak. Arrantza selektiboa bultzatzeko neurriak eta pizgarriak jarriko ditugu eta itsas produktuen dibertsifikazioa bultzatuko dugu. Araudi sanitarioa malgutzearen alde egingo dugu baserriko transformazioa ahalbidetuz.

Landa garapen elkarteak, kofradiak, arrantzaleak eta baserritarrak instituzioekin elkarlanean, planteamendu integralak landuko ditugu: lurra eta lur funtsak, enplegua, egitura publikoak, proiektu kolektiboak, azokak, sentsibilizazioa eta abar. Jantoki publikoaren legea aldatuko dugu eta jantoki publiko guztietan (eskola-jantokiak, zahar-etxeak, etab.) tokikoa, garaikoa eta elikagai ekologikoak erabiltzea sustatuko dugu, laguntzak eta inbertsioak ahalbideratuz.

Elikadurarekiko sentsibilizazioa eta hezkuntza. Erosketa publiko bidezkoak bermatzeko legea diseinatuko dugu, instituzio publikoak eredugarriak izan daitezten. Hezkuntzako curriculumean elikadura, osasuna, ingurunea eta elikadura burujabetza txertatuko ditugu, etorkizuneko jendartearen baloreak eta kontzientzia areagotu daitezten.